

2007



IRAKURRI

LIBURUTEGI ZERBITZUAK HEDATZEKO KANPAINA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



2006an egindakoa

Liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuak herritarrengana hurbiltzeko asmoz EAEko udaletan zenbait ekinbide hastea erabaki zuen Liburutegi Zerbitzuak.

IRAKURRI izenez ezagutua izan den kanpainaren bidez hainbat lekutara iritsi dira liburuak, esaterako, denda, osasun-etxe, metro eta kafeetara. Halaber, eskolaumeek kolorezko bidezidorrrak margotu dituzte espaloietan beren eskolatik liburutegiraino. Herritar orok ere ezagutu ahal izan ditu liburutegien baliabide eta eskaintzak kalean ezarritako informazio guneetan, irakurketari buruzko gidatan eta beste ekimen interesgarrietan.



Orain AURRERA GOAZ

Kanpaina honetan parte hartu duen liburutegi kopurua ikusirik eta bertako arduradunek ekintzak bultzatzeko erakutsi duten gogo eta lanari esker ekimena beste urte batez luzatzea lortu da, iraunkorrago bihurtuz.

Horrekin batera kontutan hartu dira, baita ere, liburuzain bakoitzak jarduerari buruz egindako gogoeta eta herritarrek izan duten parte hartzea IRAKURRI 2007 ekinaldia antolatzerakoan, helburu eta proposamen berriekin osatuz.



Ekimenaren helburu diren herritarren gogo eta beharrak kontutan harturik eratu dira ekintzak, ahaztu barik ordea liburutegietako arduradunen iritziak, berauek betetzen baitute eginkizunik behinena: liburutegirako asmoa eta irakurtzeko gogoia piztea.

Herritarrak eta arduradunak biak kontutan hartzeak ekimenak udal eta liburutegi bakoitzaren ezaugarriei egokitzea dakar berarekin, haserako asmoen azterketa egitera behartuz.



HELBURUAK

Hona hemen IRAKURRI 2007 kanpainaren zenbait helburu:

- Liburutegi kopuru jakin baten iradokizun bilketa, proposamenak herri bakoitzaren ezaugarriei egokitzeko.
- Sareko liburutegiek ekimenean duten partehartze indizea %15 gehitzea.
- Herri liburutegien sarea herritarrei bistan jartzea, parte hartzeko eta jakintza bultzatzeko zabalik dauden herrigune bezala agertaraziz.



Helburuok lortzeko ekinbideak honako ezaugarriak ditu:

- **Ororentzakoa**, adin guztietako pertsonak izan ditzaten beren gogoko eskaintzak, nahiz eta ohiko erabiltzaile izan ez.
- **Erraz burutzekoa**, eduki eta garabideei buruzko informazio argia emanaz eta liburuzainak lagunduz.
- **Auzolanean egitekoa**, IRAKURRI ekimena GUZTION artekoa izan dadin liburuzainen iritzi eta iradokizunak jasoz.



ARDATZAK

LIBURUTEGIA KALERA IRTETEN DA eta KALEA LIBURUTEGIRA SARTZEN DA dira kanpainaren ardatz behinenak, sortu zenetik herritarrengana hurbiltzea baita bere asmo nagusia, beren ohiko lekuetara, eskaintza atseginekin. Hartueman berriak sortuko dira horrela XXI. mende honetan, liburutegia jakintzarako gune bilakatuz, herri eta hiriei atezabalik, bizia eta egunekoa.

Ardatz hauetatik hiru proposamen argi ernetzen dira, adin talde bakoitzari begira. Liburutegien ezaugarri eta behar ezberdinak kontutan harturik, bereganatu nahi dituen erabiltzaile nahiz herritarrei egokien deritzon jarduerak eskaintzeko aukera ematen zaio liburutegi bakoitzari.



LIBURUTEGIA KALERA IRTETEN DA	KALEA LIBURUTEGIRA SARTZEN DA
LIBURUTEGIRA BIDEAN	IRAKURTZEAK ARRASTOA UZTEN DU
<p>FAMILIAK ERE BADU ZERESANIK</p> <p>4 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoak arduratzeko programa da. Elkarrekin irakurtzeko Gida argitaratzen da programa honen bidez. Haur Hezkuntzako ikastetxeetan eta liburutegietan emango da honen berri.</p> <p>Liburutegietan bertan banatuko zaie gida familiei, txikientzako opari bat barne. Beharrezko edukiak izango ditu Gidak: haurrak eta liburuak, irakurtzeko gogoaz sortzeko aholkuak, irakurketaren mesedeak, irakurgaiak adin taldeka, eta abar.</p> <p>LIBURU BAT, LAGUN BAT</p> <p>Liburutegiak bere bezeroak gonbidatuko ditu beren adiskide edota senideren bat lagundu dezaten liburutegiko txartela eta liburu-mailegua lortzeko. Liburutegietan bertan iragarriko da kartel eta txartelen bidez.</p> <p>Liburutegiak opari bana izango du bezeroarentzat eta bazkide berriarentzat.</p>	<p>LIBURUA AGERI DUEN ERRETRATUA</p> <p>EAEko DBHko ikastetxe pribatu eta publikoetako ikasleen (12-16 urte bitartekoak) arteko argazki digitalen lehiaketa. Liburutegi Egunaren baitan burutuko litzateke, urriaren 24an. Gaia: irakurtzen ari den, liburu bat duen edota liburu artean dabilen pertsona baten erretratua edota autorretratua. Ikastetxe eta liburutegietan iragarriko da kartel eta liburuxken bidez. Partehartzaileak liburutegian aurkeztuko du bere irudia CD batean. Denek opari bana jasoko dute parte hartzeagatik.</p> <p>Guztien artean aukeraketa zabal bat egingo da. Hauen arteko lanik onenek sari bikainak izango dituzte. Gainontzeko aukeratuak ere jaso dute sari bana.</p> <p>Erakusketa birtual batean agertuko dira aukeratu guztiak, Eusko Jaurlaritzaren web orrian (euskadi.net). Irudien ondoan egilearen, ikastetxearen eta liburutegiaren datuak agertuko dira. Katalogo batean ere argitaratuko dira, ELSNko liburutegietara igorria izateko.</p>



PARTE HARTZEA

Liburutegi sarea osatzen duten 208 liburutegiek ekimen honetako jarduera nagusian parte hartzea lortu nahi du Liburutegi Zerbitzuak, EAEko herritar orok ezagutzeko aukera izan dezan.

Beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DBHko ikastetxe guztietako ikasleak argazki digitalen lehiaketa batean parte hartzera deituko ditu, “LIBURUA AGERI DUEN ERRETRATUA” gaitzat harturik.



LEHIAKETA

Liburu bat duten pertsonak edota irakurtzen ari direnak agertuko dira irudietan, gazteek irakurketari buruz duten irudipena islatuz. Irakurketarekiko harremana sendotu ahal izango dute jarduera sortzaile honekin, teknologia berriekin eta gogoko gaiekin modu atseginean uztartzean.

Aukeratutako irudiak, sarituak barne, erakusketa birtual batean eta argitaratutako katalogoan ikusi ahal izango dira. Irudigileek, beren ikastetxeek eta CDa jaso duten liburutegiek sariak izango dituzte.




LEHIAKETA

LIBURUA

AGERI

DUEN



ERRETRATUA



EGUTEGIA

Proposatutako jarduerekin bat egin nahi duten liburutegiek Liburutegi Zerbitzuari eman ahal izango diote beren parte hartzearen berri uztailetik aurrera.

Kanpaina hau liburutegi eta herritar guztientzako da. Parte hartuz leku hauen baliabide eta zerbitzuen berri zabaldu daiteke, herriak aberastuz.

Irailetik aurrera komunikabidez zabalduko da ekimenaren berri eta informazio zehatza igorriko da liburutegietara, jardueretan parte hartu dezaten.

Kanpaina irail eta abendu bitartean burutuko da, nahiz eta jarduera nagusia urriaren 24an, Liburutegi Egunean, gauzatu daiteken.

2007



IRAKURRI

LIBURUTEGI ZERBITZUAK HEDATZEKO KANPAINA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA